Sobre la pregunta del concejal Sr. Garralda sobre el tema de Menditxuri y sus lindes entre Burguete y Espinal, contesta la alcaldesa que no se ha traído el tema a pleno porque falta el acuerdo del Concejo de Aurizberri/Espinal.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las 19:35 h. del mismo día, de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2024ko otsailaren 28ko 17:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldua Ortiz de Guzman, Enrique Garralda Erro, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gari zerrendari ekin baino lehen ETI taldeko Gil García zinegotziak eta Haize Morea taldeko Jiménez Rey zinegotziak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.



### **1.- 2023ko ABENDUAREN 20ko eta 2024ko OTSAILAREN 8ko BILKUREN AKTEN ONESPENA**

Aho batez erabaki da 2023ko abenduaren 20ko akta onartzea; Garralda zinegotziak denetarik izeneko puntuan Aurizberriko liburutegiko arduradunaren aferari buruz berak esan zuela ETako agintaria izan zela eta ez dela aktan agertzen aipatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2024ko otsailaren 8ko bilkuraren akta onartzea, zuzenketak barne.

### **2.- 2023ko ABENDUAREN 16tik 2024ko OTSAILAREN 23a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2023ko abenduaren 16tik 2024ko otsailaren 23a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta esan du Gurbizarko obrak geldiarazteari buruzko 3/24 Ebazpenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ez zigortzea falta dela, berreroriak direla uste baitu, eta lurraren jabe izateagatik sartu beharko litzaiokeela dio, eta Mikel Torrearen ebazpenarekin parekatu du, antzekoak direlakoan. Idazkariak erantzun du ez direla antzeko kasuak, izan ere, Nafarroako Gobernuak ez da egintza batzuen zuzeneko betearazlea eta, beste kasuan, bai, eta, bestalde, Gurbizarko ebazpenean, Lurraldearen Antolamendu Departamentura jo da, horrek ere parte har dezan. Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta adierazi du ezen, Nafarroako Gobernuari erantzukizunak eskatu behar zaizkion arren, Udalaren jarduketa ezin dela bera izan bi kasuetan, bi jarduketa desberdin baitira, Gobernuak zerbait baimentzen du, baina ez da gauzatzen ari.

Udalkideak jakitun dira.

### **3.- 2024ko LAN EGUTEGIA ONARTZEA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta gogorarazi du aurreko bilkuran ezin izan zela lan egutegia onartu, Nafarroako Gobernuak oraindik onartu ez zuelako, eta bilkura honetan aurkeztu du, onets dadin.

Alkateak dio aurreko bilkuran udalaren festa egun gisa ekainaren 24a eta abenduaren 5a ezarri zirela, baina hori abenduaren 20ko bilkuran aldatu behar dela, ekainaren 24a ez baita Udalaren festa eguna eta abenduaren 5a tokiko festa egun gisa uztea proposatu du.

Horiek horrela egutegi hau onetsi da aho batez:

*Aste barruko jaiegunen egutegia 2024. urtean langileentzat. Hona hemen 2024. urterako jai ordainduak eta errekuperatu gabeak:*

- urtarrilaren 1a, astelehena: Eguberri Eguna.*
- martxoaren 28a: Ostegun Santua Jueves Santo.*
- martxoaren 29a: Ostiral Santua*
- apirilaren 1a: Pazko astelehena*
- maiatzaren 1a, asteazkena: Laneko Festa*
- uztailaren 25a, osteguna: Santiago Apostuluaren Eguna*
- abuztuen 15a, osteguna: Ama Birjinaren Jasokundearen eguna.*
- azaroaren 1a, ostirala: Saindu Guztien Eguna.*
- abenduaren 3a, asteartea: Xabierko Frantziskoren Festa-Nafarroaren Eguna*
- abenduaren 5a, osteguna: tokiko festa, San Nikolas eguna.*
- abenduaren 6a, ostirala: Konstituzioaren Eguna*
- abenduaren 25a, asteazkena: Eguberri Eguna*

*Halaber, baliogabeak izanen dira 2024. urtean epeak kontatzeko, igande guztiak eta Udalaren bulegoetarako jaiegun diren egunak.*

*Erroibarko Udaleko urteko lanaldia, 1592 benetako lanordukoa, honela banatuko da: Eguneroko lanaldia, astelehenetik ostiralera, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da, 8:00etatik 15:00etara. Gainerako 20 minutuak langileak aukeratuko ditu eta malgutasunez, 7:40tik 8:00etara eta 15:00etatik 15:20ra bitartean.*

*Lanorduetan akordioak lortzen saiatuko da beti, bizitza pertsonala eta lanuztartzea ahalbidetu eta errazteko. Gai hori bereziki kontuan hartuko da seme-alaba adingabeak, seme-alaba ezgaituak, odolkidetasun eta ezkontza-ahaidetasuneko lehen eta bigarren mailako pertsonak, gaixoak, menpekoak eta abar daudenean. Eta justifikatuta egon beharko du.*

*Erregelamenduz finkatutako oporrak administrazio-organo eskudunak baimenduko ditu.*

*Langileek beren aferetarako 3 egun hartu ahalko dituzte eta Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera beste egun batzuk sartzen dira, gehienez ere 4 opor egun gehiago lan egindako urte gehien dituzten langileentzat eta 9 egun norberaren kontuetarako.*

#### **4.- BAKE EPAILEAREN ETA HAREN ORDEZKOAREN KARGUAK BERRITZEA ONARTZEA**

Remiro Esnoz alkateak hitza eman dio idazkariari, gai honi buruzko informazioa eman dezan. Horren arabera, azken bake epaileak, titularrak eta ordezkioak, izendatu zirenetik lau urte igaro dira. Beraz, bidezkoa da, Botere Judizialaren Lege Organikoan

eta Bake epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan xedatutakoa betez, bake epaile titularraren edo ordezkoren karguak betetzeko deialdi publikoa egitea.

Hori ikusirik, aho batez erabaki da bake epaile titularraren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdi publikoa egitea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdunek beren eskaerak Udal Idazkaritzan aurkez ditzaten.

#### **5.- AURIZBERRIKO UE 15 1 ETA 2 UNITATEAREN URBANIZAZIO PROIEKTUA, ANTXON ITURRIK SUSTATUA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta aditzera eman du ezen, Aurizberriko (Erroibar) UE15 (UE15-1 eta UE 15-2) exekuzio unitatea urbanizatzeko Antxon Iturri Gazteluk sustatutako proiektuari alegazioak aurkezteko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, bidezkoa dela hura behin betiko onestea.

1.- Aho batez erabaki da behin betikoz onestea Juan Manuel Erice Zunzarrenek idatzitako eta 2023ko urtarrilaren 1ean sinatutako urbanizazio proiektua, Aurizberriko UE-15 exekuzio unitateari dagokiona, Antxon Iturri Gazteluk sustatua.

Hartutako erabakia sustatzaileari eta Nafarroako Gobernuako Lurraldearen Antolakuntzako Zuzendaritza Nagusiari igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **6.- ABELTZAINZA AZPIEGITUREN PROIEKTUAREN ALDAKETA ONARTZEA ETA KONTRATAZIO PROZEDURA ONARTZEA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta esan du dagokion arloan Nafarroako Gobernuak onetsitako neurrizko zenbatekoen gainean lan egin zela, Udalak hasieran aurkeztutakoetatik nahiko urrun baitaude. Horregatik erabaki zen, datu horien arabera eta Basarteako teknikariak zifra batzuk oker zituenez, proiektua berriro doitzea.

Azken finean, 39.138,00 euroko aurrekontu erreala, Nafarroako Gobernuak, bere baremazioekin, 20.140,00 eurotan uzten du eta kopuru horren gainean 9.987,00 euroko laguntza ematen du, ez eta azken kostuaren %30 ere. Garralda zinegotzi jaunak uste du engainua dela eta, gainera, Nafarroako eskualde guztiei ezin zaiela modu berean barematu, obren kostua Iruñerrian edo hemen ez delako berdina eta hori alkateak berretsi du, eta gaineratu du titularretan agertzen dena dela %60ko laguntzak ematen dituztela.

Aho batez erabaki da urte honetan egin beharreko abeltzaintzako azpiegituren proiektuaren aldaketa onestea eta erabili beharreko esleipen prozedura onestea, Kontratuei buruzko Foru Legearen 81. Artikuluan aipatutakoa, Munta txikiagoko kontratuatarako araubide berezia hain zuzen ere.

#### **7.- DANA ERAUNTSIAREN PROIEKTUAREN ONESPENA BERRESTEA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta adierazi du espedientea, eskaera aurkezteko datak direla eta, dagoeneko izapidetu dela eta dagokion lan-eremuan erabaki zela, laguntza murriztearen ondorioz, Arbilletako inbertsioari lehentasuna ematea, eta, Odiako pistari dagokionez, mantentze-lanak bakarrik egitea; izan ere, baso-jardueretarako laguntzen hurrengo deialdietan pista hori sartu ahal izango da. Aho batez erabaki da Dana erauntsiaren dirulaguntzetara aurkeztu den proiektua berrestea.

### **8.- 2024AN LANGABETUEN KONTRATAZIOA ONARTZEA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta langabeen kontratazioari dagokionez, Udaleko langileekin balorazioa eta egin beharreko lanak egin ondoren, pertsona bat sei hilabeterako eta beste bat hiru hilabeterako kontratatzea proposatzen du. Garralda zinegotziak nahikoa izango den galdetzen du eta Nuño zinegotziak dio gaia zerbitzu anitzetako langileekin landu dela eta hainbat lanetan beharrezkoa dela ikusi dela baina baita nahikoa egin behar diren lanak egiteko. Dena den, langile gehiago behar izanez gero, kontratazio berriak egin daitezke, gehienez ere sei hilabeterako. Aho batez erabaki da bi pertsona kontratatzea, bat sei hilabeterako eta bestea hiru hilabeterako.

### **9.- ERROKO ESKOLA BERRITZEKO LANEN MEMORIA ETA DIRULAGUNTZA ESKATZEA ONARTZEA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du ikastetxe publikoak hobetzeko laguntzen deialdia argitaratu dela (abenduarien 28ko 197E/2023 EBAZPENA), Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena, bai eta laguntza horietara aurreko urteko deialdian aurkeztutako obrak jasoko zituen memoria aurkezteko eskolako zuzendaritzak egindako eskaera ere. Nasuvinsari eskatu zaio memoria eguneratua prestatzea.

Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

1.- Dirulaguntzak eskatzea Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako-DBHko ikastetxe mistoak hobetzeko eta birmoldatzeko obren proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako dirulaguntza deialdian.

2.- NASUVINSAk idatzitako memoria baloratua onartzea eta Erroko Eskola Publikoa birmoldatzeko eta eraberritzeko lanak egitea. Horren kostua honakoa da: 11.100,97 €, gehi 90 € memoria egiteko, gehi 2.500,00 € biltegia egiteko proiektua eta obra zuzendaritzarengatik, gehi %21 BEZa.

- Biltegia egitea

Kontrataren aurrekontua: 6.243,37 €

Proiektua eta zuzendaritza 2.500,00 €

Memoria baloratua 60,00 €

- Leiho oszilobatienteak jartzea

Kontrataren aurrekontua: 4.857,60 €

Memoria baloratua 30,00 €

Obren kontratuaren aurrekontua 11.100,97 € da (BEZ kanpo).

Memoria baloratua idaztea 90 € (BEZ kanpo).

Biltegia egiteko proiektua eta zuzendaritza 2.500 € (BEZ kanpo)

3.- Abenduaren 28ko 197E/2023 Ebazpenean oinarrituta, dagokion diru-laguntza eskatzea, eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztuz.

4.- Abenduaren 28ko 197E/2023 Ebazpenean jasotako oinarriak betetzeko konpromezua hartzea, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako diru-laguntzen deialdiari buruzkoa, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoak Lehen Hezkuntza-DBH hobetzeko eta birmoldatzeko obren proiektuak gauzatzeko.

5.- Udalaren aurrekontuetan diru-hornidura nahikoa izateko konpromisoa, eskatutako diru-laguntzaren xede den obraren kostu osoari aurre egiteko.

## **10.- SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2024**

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du osoko bilkuran aurkeztu ohi zen dokumentua berrikusi dela eta informazioa antolatu dela herri-lurretako ordenantzarekin bat egiteko eta onartzea proposatu du.

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta galdetu du ea ez den kontuan hartu ADI irekita uztea eta alkateak erantzun du ez dela dokumentu honetarako kontuan hartu eta zinegotziak erantzun du arauetan ez berandu egin zirelako baina batzordea egin zenean aipatu zela irekita utzi ahal zela eta horregatik galdetu duela eta Garralda zinegotziak hitza hartu du eta esan du horren gaineko txostena eskatu zela. Alkateak berriz hartu du hitza eta esan du atzora arte txostena ez zuela izan, eta, hain zuzen ere, ez dela gai hau hemen sartu, baina gero egokitzat jotzen bada, aldatu egin daitekeela. Bidaurreta zinegotziak galdetu du abeltzainekin bilera bat egiteko asmoa dagoen, aldaketa horiengatik guztiengatik: Adi, alkatetza berria, etab. Alkateak erantzun du, txostenari dagokionez, ez dela egon lan-alorrean baloratzeko astirik eta,

bilerari dagokionez, ez dela horren inguruan hitz egin, baina ez dagoela baztertuta. Abeltzaintzarekin bezala, beste sektore batzuekin ere bilerak egin behar dira, eta oso praktika osasungarria da tokiko ekonomiaren esparru desberdinekin elkartzea. Zinegotziak galdetu du, halaber, abeltzainek bete behar duten plantillari dagokionez, irailean sartzen diren ardien gaia falta dela. Alkateak erantzun du plantilla hori dagoeneko bazegoela baina landu eta hobetuko dela.

Aho batez erabaki da bazkalekuen arau hauek onartzea 2024rako:

## **PROPOSAMENA:**

### **SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2024**

#### **1. Sorogaingo bazkalekuen 2024ko aprobetxamenduaren arauak onartzea**

- a) Erroibarko abeltzain interesdunek aziendak Udal Idazkaritzan apuntatuko dituzte 2024ko apirilaren 1a baino lehen, eta horretarako prestatutako eskabidea aurkeztuko dute. Abeltzain bakoitzeko ALU kopurua gehienez ere 70 ALU izanen da.
- b) Erroibarko abeltzain interesdunek, abereak larreetan sartu baino lehen, legez eska daitezkeen osasun-ziurtagiriak Udal Idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte .
- c) Azienda-markak honako ordutegi eta tokietan izanen dira:
  - A) Udaberriko marka: 2024ko Maiatzaren 11n, 9:00etatik 14:00etara, Sorogaingo eskortan.
  - B) Urepeleko marka: 2024ko maiatzaren 25ean, 10:00etatik aitzina Urepelen.
- d) Aziendaren antolaketa:
  - A) Erroibarko azienda maiatzaren 11n markatuko da. Egoera klimatologikoak hala eskatzen badu edo larreen bolumenaren kalitateak gomendagarria egiten badu, Erroibarko Udalak azienda sartzeko datak aldatzea erabaki ahal izango du.
  - B) Azienda maiatzaren 11tik aitzina sartuko da Sorogainen.
  - C) Data hori baino lehen debekaturik dago azienda Sorogaingo bazkalekuetan sartzea.
  - D) Udaberriko marka egunean Sorogaingo larreetan sartzera datorren ibarreko azienda egun hori baino bi egun lehenago

egon ahal izango da Sorogainen, eta bakarrik Arbilletan, baina nahitaez markaren egunean jaitsi beharko da eskortara.

E) Markaren egunean ez da aziendarik markatuko karroetan.

F) Azienda Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.

e) Sorogaingo bazkalekuen 2024ko kanonak hauek izanen dira:

A) Ibarreko azienda:

1. TARIFAK

a. Behi-azienda	33,00	
	€.	
b. Zaldi-azienda	43,00	
	€.	
c. Ardi-azienda	4,3 €.	
d. Belar erdia (uztailak 15)		2,15
		€.
e. Ahuntz-azienda	4,30	
	€.	

2. Markaren egunean markatzen ez diren azienda guztiak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, ostiraletan eta astelehenetan bakarrik markatuko dira, 8:00etatik 14:00etara, Sorogaingo mahukan (etxeko mahuka), eta %10 gehiago kobratuko zaie. Modu berean, azienda aldaketak egiten dituztenei %10 gehiago kobratuko zaie.

3. Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartuko den aziendaren prezioaren %50 urteko apirilaren 30a baino lehen ordainduko da. Ordainketa azienda sartu baino lehen egin behar da. Gainerako %50 urteko uztailaren 31 baino lehen ordainduko da.

4. Kopuru horiek ordaintzen ez dituenari Udalak ez dio NPBrako hektarearik ziurtatuko, eta hurrengo urtean ezin izango du aziendarik sartu Sorogainen.

5. Belar erdira (uztailak 15) sartuko den aziendari dagokion kopuru osoa ekainaren 30a baino lehen ordainduko da.

6. Irailaren 1etik aurrera sartzen den ardi aziendari heren bat kobratuko zaio buru bakoitzeko, eta kanona abuztuaren 31

baino lehen ordaindu beharko du.

7. Erroibarren bizi diren 30 urte edo gutxiagoko abeltzainek eta abeltzain ustiategi baten titular gisa 4 urte edo gutxiago daramaten abeltzainek %10eko murrizketa izanen dute Udal honek ezarritako kanonaren gainean. Era berean, abeltzaintzan nagusiki ari den abeltzain emakume orok % 10eko murrizketa izanen du Udal honek ezarritako kanonean.

B) Frantses azienda:

1. TARIFAK
  - a. Behi-azienda 71,00 €.
2. Baigorriko Ibarreko sindikatuak Sorogainen sartuko den aziendaren zerrenda eta kanona aurtengo maiatzaren 15a baino lehen ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.
3. Urepeleko Marka egunean Sorogainen sartzen den frantziar aziendaren %75 gutxienez oinez joan dadila markaren egunean, eta gainerako azienda Sorogainera kamioietan joan dadila, Baigorriko Sindikatuaren baimenarekin.
4. Era berean, markaren eguna ez den beste batean azienda sartzen duten frantziar abeltzain guztiek ezarritako kanonaren gaineko %20ko errekarua ordainduko dute. Kasu horietan ezin izanen da inolako justifikaziorik alegatu.
5. Azienda Sorogainera eramaten duten bakoitzean, abeltzainek aguazilari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak kontrolatu ahal izateko.

C) Kanpoko azienda:

1. TARIFAK
  - a. Behi-azienda 71,00 €.



2. 2.024an frantses ardi-azienda sartzeko debekua mantentzea.
3. Frantses eta kanpoko zaldi-azienda sartzeko debekua mantentzea.
4. Udal Ordenantzaren arabera indarrean dauden debekuen informazioa ematea:
  - A) Burguete arrazakoak ez diren hazitarako zaldiak sartzea debekatzea.
  - B) Zekor eta zezenak sartzea debekatzea.

#### **11.- BIGARREN UDAL IBILGAILUAREN EROSKETA ONARTZEA**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta esan du, puntu honi dagokionez, aurreko legegintzalditik datorren premia bat dela, eta udalbatzan planteatzen dela bigarren udal ibilgailu bat, kasu honetan Berlingo motako furgoneta bat, erostea egokia den ala ez erabakitzeko, sei mila eta zazpi mila euro bitarteko prezioa duena. Prezio hori Udalak kontratatutako pertsonak urtean gastatzen duen kilometrajearen arabera baloratu da. Bigarren eskuko ibilgailuak saltzen dituzten enprekin harremanetan jarri gara eta eskaintzak bidaltzen hasi dira; kasu honetan, Iriarte ibilgailuekin, 130.000 km inguruko ibilgailuak dira.

Erabiltzen ez den bitartean ibilgailua gordetzeko lokal edo leku bat bilatzeko beharra ere azaltzen du, bai eta ibilgailua geldirik dagoen hiru hilabeteetan eman beharreko erabilera ere.

Aho batez erabaki da aipatutako ezaugarriak dituen bigarren udal ibilgailua erostea.

#### **12.- MARTXOAREN 8A: NAFARROAKO BERDINTASUN TEKNIKARIEN ERAKUNDE ADIERAZPENARI ATXEKITZEA**

Redmiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta martxoaren 8ko ospakizunari dagokionez, Nafarroako Berdintasunerako Teknikarien Sareak egindako aitorpenari atxikitzea proposatu du, NUKFak ez baitu aitorpen propiorik egiten.

Aho batez erabaki da Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sareak prestatutako erakunde adierazpena onartzea.

**Gai zerrendatik kanpo**, Remiro Esnoz alkateak honako gaiei ekitea proposatu du:

#### **1.- KATASTRO ALDAKETA, AURIZBERRIKO KONTZEJUAK ETA AURIZBERRIKO 12 POLIGONOKO 52 LURZATIKO JABEEK SUSTATUA**

Remiro Esnoz alkateak idazkariari eman dio hitza eta honek Aurizberriko Kontzejuaren eta Aurizberriko 12. poligonoko 52. lurzatiaren jabeen artean hartutako erabakiaren berri eman du. Erabaki hori beharrezkoa da lurzattia berrantolatzeko eta katastroa aldatzeko, berrantolamendu horrek kontzejuaren lurretan ere eragina baitzuen. Modu berean jakinarazi du aldaketa egiteko beharrezkoa dela Udalak oniritzia ematea.

Udalbatzak gaia eguneko gai zerrendan sartzea eta aldaketa kontzejuak eta jabeek adostu eta sinatu dutela ikusita, erabaki du:

1.- Aurizberriko 12 poligonoko 52 lurzatiako katastro aldaketa onartzea.

2.- Aurizberriko kontzejuari eta 12 poligonoko 52 lurzatiako jabeei erabaki honen berri ematea.

## **2.- “AHORA 1080 ORAIN” GIZARTE EKIMENEN MOZIOA**

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du, eta “Ahora 1080 € Orain” kolektiboak aurkeztutako mozioaren berri eman du, Nafarroan gutxieneko pentsioa 1080 €-koa izatea eskatzeko.

Udalbatzak erabaki du aho batez gaia premiaz sartzea gai zerrendan 2024ko martxoaren 1a baino lehen Nafarroako Parlamentuan aurkeztu behar baita eta honakoa erabaki du aho batez:

1.- Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari eskatzea 2024tik gaitzen duela pentsiodunen pentsioa 14 ordainsarirengatik 1080 euro osatzeko behar den kontusaila.

2.- Udal honen babesa adieraztea kolektibo horren aldarrikapenei eta, zehazki, pentsioetan dagoen genero-aldea ezabatzei.

3.- Osoko bilkuran hartutako erabakiaren jakinarazpena Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari igortzea.

## **13.- BESTERIK**

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta aurreko bilkuran bezala, sortutako lan-arloen arabera, honako hau jakinarazi du:

**1 Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du**

**Gazteriaren prozesu parte-hartzailea**

Jakinarazi da, aurreko osoko bilkuran geratu zen bezala, Artelaneke prestatu zuen proposamena aurkeztu dela Gazteria Politiken laguntzetarako. Proposamen hori Pirinioetako laguntzetarako ere aurkeztuko da.

Udalbatza jakitun da.

### **Desak**

Desei dagokienez lau birtziklatze ikastaro egin dira eta 47 pertsonak hartu duten parte. Hastapen ikastaroa ere egin da eta 10 pertsonak hartu dute parte eta desen urteko errebisioa egin da.

Udalbatza jakitun da.

### **Berdinatsuna**

Jakinarazi da bihar dela NABlren dirulaguntzetan justifikazioak aurkezteko azken eguna eta Ruth Iturbideren ikastaroa larunbatean egingo dela 9:30etik 13:30era.

Protokoloaren egokitzapena Arete Activarekin lantzen ari da eta Garaitzeko Asik galdetu du zinea eta landa emakumeen zikloa beraiekin eta Aurizko Udalarekin antolatu nahi dugun.

Auñamendiko protokoloaren mahaiak bilera egin zuen urtarrilaren 20an eta bi formazio antolatu dira, martxoaren 7an eta 15ean, eta informazioa udalkideei eta kontzejuei igorriko zaie.

Eskualdeko Berdintasun Zerbitzuarekin bilera egin da eta martxoaren 8ko ekimenak landu dira, eta martxoaren 7an, 14:30ean, Auritzen martxoaren 8ko kanpaina aurkeztuko da, izan ere Udal honek atxikimendua adierazi du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Ongizatea eta osasuna**

Jimenez Rey zinegotziak parte hartu zuen Iruñean otsailaren 2an ospatu zen ongizate emozionalari buruzko jardunaldian eta horretan dirulaguntzak aurkeztu zirela.

Udalbatza jakitun da.

### **Farmazien eskaera**

Pirinioetako farmaziek Farmazien Ordutegiei buruzko Foru Dekretuari dagokionez egindako eskaeraren berri eman da, udalek presioa egin dezaten Pirinioetako farmazietan guardiek gaur egun duten 24 orduko ordutegia murrizteko, izan ere, zerbitzua osasun zentroek artatu dezakete. Dekretua Gardentasun Atarian dago, nahi duenak alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Auñamendi Mankomunitatea**

Jakinarazi da Mankomunitatearen bilera izan dela eta karguak berri direla eta Nuño zinegotziak Mankomunitate buru izaten jarraituko duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Mendekotasunen Tokiko Plana**

Pause proiektuari dagokionez, aditzera eman da bihar bilduko dela Mendekotasunen Tokiko Ekintza Planaren mahai politikoa. Proiektua idatzi zen eskualdeko toki entitateei dei egin zaie planaren proposamenetan aktiboki parte hartu nahi duten ikusteko. Bilera udaletxean izanen da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **“Hurbildu” proiektua**

Hurbildu proiektuak, joan den legegintzaldian hasitakoa eta bertan Errok eta Cascantek parte hartzen duten proiektu pilotuak, aurrera jarraituko du, eta datorren astelehenean Departamentuko ordezkariak eta Felix Taberna lehendakariordeak helduen egoitza, etxe batzuk eta abar bisitatuko dituzte. Ekitaldi horretara Udala joango da, izan ere, balorazio ona izan duenez, bigarren fasea egongo da eta 2025eko otsaila edo martxoa arte luzatuko da. Erron eta Cascanten garatzen ari diren ekimenak mantenduko dira eta Olitera zabalduko dira, telemedikuntzaren tresnak aztertzeko. Zinegotzi andreak hartu du hitza. Proiektu honi dagokionez, denbora askoan falta izan da informazioa; alkateak erantzun du tarteko ondorioen txostena eskatu duela, nahiz eta egia den Udalak, bere aldetik, ez duela interakziorik egin behar izan eta ez duela esku hartu behar izan, egin diren ekintzak egoitzaren bidez kudeatu baitira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Suteak**

Alkate andrea Remirok jakinarazi du suteen aurkako jarduketei buruzko prestakuntza antolatzen ari dela. Kontzeju guztietara bidali da, herritarren artean zabaltzeko, eta, erantzun handirik izan ez bada ere, badirudi aurrera aterako dela, pertsona interesatuen talde bat baitago. Datorren astean datak jakinaraziko dira, beste norbaitek izena eman nahi badu ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du**

### **Olaberriko pizifaktoria**

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak erabakiko duenaz aparte, hitz egindakoari jarraiki eta Eburne Almirantearenarekin elkarlanean, bideotxo bat grabatu zaio Lucio Erreari eta orain editatuko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Amatxien Ahotza izeneko proiektua**

Amatxien memoria jasotzeko proiektuari dagokionez, Bidaurreta zinegotziak Artzibarko Udalarekin batera landu zuen joan den urtean, baina presaka proposatu zenez, parte ez hartzea erabaki zen eta oraingoan berriro heldu zaio gaiari, eta bihar Erremedios Berrocal Udalera etorriko da, harekin jarraitu nahi dugun ala ez ikusteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Erroko Eskola**

Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta jakinarazi du bozketa egin dela eskoletako lanaldi etengabearen gaiari buruz, eta Erroko eskolako familien botoa izan dela, aho batez, lanaldi jarraitua onartzea; Aurizberriko eskolan zazpi boto lanaldi jarraituaren alde eta hiru boto lanaldi malguaren alde. Aurizberriko eskolari dagokionez, ikastetxeko zuzendariak azaldu zion ia behartuta egon direla lanaldi jarraitua bozkatzera, Garraldako eskolako eta jantokiko ordutegiekin lotura zuzena dutelako.

Jakinarazi du baita Aurizberriko eskolak proiektua aurkeztuko duela aterpea ixteko eta dirulaguntza eskatzeko, eta proposamena Nasuvinsara igorri dutela memoria egin dezaten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Korrika 2024**

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du aurreko urteetan bezala Korrikan parte hartuko duela Udalak kilometro bat erosiz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3 Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Jimenez Rey zinegotziak eman du informazioa**

#### **Urrobi Partzuergoa**

Bilerak eta elkarrizketak izaten ari dira Nafarroako Gobernuak parte har dezan eta Aezkoako Juntaren eta Udalaren artean erakunde berri bat antolatu edo elkarlana aurrera eramateko modu bat.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Guifinet**

Hainbat gairen inguruan Guifinetekin izandako bileraren berri eman da; besteak beste, tokiko zuntzaren hedapenaren azterketa eta Telefonikaren jakinarazpenen egoera, desagertu egingo den kable bidezko komunikazioari buruzkoa, eta horren guztiaren aurrean nola jokatu behar den zain.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Over trails**

Apirilean ospatuko dela jakinarazi da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Cederna**

Jimenez Rey zinegotziak jakinarazi du Luzaideko, Orreagako, Aurizko eta Erroibarko alkateen eta Cedernako presidentearen eta presidenteordearen arteko bilera egin dela erakunde horien egoerari buruzko iritziak trukatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **“Jakiak ehuntzen” proiektua**

Otsailaren 14an Irunberrin egindako bileraren berri eman da. Bilera hartan, “Jakiak ehuntzen” proiektuaz eta azken lau urteotan egin denaz hitz egin zen, eta emaitza

horrekin, Zangozako Merindadea osatzen duten erakundeek horren gainean duten interesa ikusi zen. Ekarpen ekonomikoari buruzko eskaera egin zen Udalak baloratzeko baina oraindik ez dute aurkeztu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **PSTD**

Udalak Cedernako ordezkariekin izandako bileraren berri eman da. Bilera horretan, udalak aurkeztutako proiektuak onartu zirela baieztatu zen eta jarraitu beharreko administrazio izapideak azaldu ziren. Hala ere, Nafarroako Gobernuarekin sinatu beharreko hitzarmena bidali behar da, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak onartu ondoren, dirudienez.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **UGET**

UGET-eko batzorde teknikoak otsailaren 21ean Ariben egin zuen bileraren berri eman da. Bilera horretan, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitate osorako kudeatzen dituen Next Generation funtsekin egiten ari ziren ekintzak azaldu ziren, eta bilera horietan ere hiru hilean behin lan egitea erabaki zen. Hala ere, oraingoz ez dago erabakitze ahalmenik, oraindik ere ez baitago erabaki askorik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Digitalizazio jardunaldia 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalentzako**

Gil zinegotziak hitza hartu du jardunaldietan parte hartu baitzuen eta informazioa eman du. Laguntzak bitan daude banatuak, 1000 biztanle baino gutxiagoko udalen kasuan epea martxoaren 30ean bukatuko da eta bestea gainerako udalentzako da. Animsak inkesta bat egin du udal bakoitzaren digitalizazio-maila ezagutzeko eta udal bakoitzak zer behar duen ikusteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **4 Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Remiro Esnoz alkateak informazioa eman du**

#### **Bidausi Mankomunitatea**

Zaldua zinegotziak jakinarazi du Bidausi Mankomunitateko Batzar Orokorrean Jose Irigaray Gil Mankomunitate buru izendatu zutela eta Jimenez Rey zinegotzia Presidente ordeza eta batzar iraunkorra osatu zela. Jakinarazi da baita ere kamioi gidaria joan egin dela, matxura anitz izan direla eta kexak pilatu egin direla. Kamioiek matxura anitz izan dituzte eta urte konplikatu izan da. Garralda zinegotziak hitza hartu du eta esan du Mankomunitateko arduraduna bakarrik dagoela eta ezin duela guztiarekin eta langile gehiago behar direla. Orain zerbitzua hobetzeko lan egin behar da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Mendiko bazkalekuak**

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du mendiko bazkalekuen dirulaguntzei buruzko errekerimendua izan dela eta hori konpondu eta aurkeztu dela. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **5 Arloa (hirigintza, azpiegiturak, etxebizitza)**

### **Uraren digitalizaziorako dirulaguntzak**

Tokiko erakundeentzat uraren zikloa digitalizazioaren bidez hobetzeko atera diren laguntzen berri eman du. Tabar-ekin eta Eunate-rekin hitz egin da, proiektu bat presta dezaten. Proiektu horretan, besteak beste, kontagailuak jarriko dira biltegietan, argailu automatikoak, bitarteko kontagailuak, mailen ohartarazlea, etab. Aurkezteko epea martxoaren 30ean bukatuko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Nilsarekin elkarlana**

Alkateak jakinarazi du Nilsak Udalari laguntza eskatu diola egiten ari diren proiektu pilotu batean parte hartzeko, eta inkesta bat bete behar dela.

Garralda zinegotziak esan du Nilsarekin hitz egin behar dela araztegiaren ondoan tapoia baitago eta garbitu behar baita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Tokiko Azpiegitura Plana (TAP)**

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du gaur iritsi dela Lintzoaingo zolatze lanen 1go. Fasea behin betiko onartzen duen ebazpena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **6 Arloa (ekonomia, kontuak, aurrekontuak, ogasuna, zergak)**

### **2024ko aurrekontuak**

Jimenez Rey zinegotziak jakinarazi du bilera egingo dela udalkideekin 2024ko aurrekontuan prestatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **7 Arloa (kontzejuak, herriak, pirinioa, toki administrazioa)**

### **Pirinioko Mahaia**

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Pirinioetako Mahaia errebindikazio ekintzak bultzatzen ari dela, Pirinioetako Planari balioa emateko eta Nafarroako Gobernuaren eta Parlamentuaren konpromisoak lortzeko.

Bilera egin duela Udalak Gu Pirinioarekin hurrengo deialdiez eta eskaini ahal dizkiguten laguntzez hitz egiteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Bilera kontzejuekin**

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du kontzejuekin bilerak egiten jarraitzen dutela eta horietan hainbat gaiez hitz egin dela eta dinamika horri jarraipena emango zaiola. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **8. Arloa (festak, ekitaldiak, Erroibarko Eguna) Remiro Esnoz alkateak informazioa eman du**

##### **Erroibarko Eguna**

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du lehenengo bilera egin dela gazteekin, eta bertan informazio interesgarria atera zela eta lanean jarraituko dela. Sagardotegia kontratatuta dago, haurrentzako menua sartuko da eta menu begetarianora egokituko da nahi duenarentzat.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Garralda zinegotziak galdetu du zertan den Menditxuri eta Auritz eta Aurizberriko mugen afera eta alkateak erantzun du gaia ez dela bilkurara ekarri Aurizberriko kontzejuaren erabakia falta baita.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 19:35ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.